



## Travel-Up SL

### Funtsezko jarduerak

Funtsezko jarduerak oinarrizkoak dira gure balio proposamena garatzeko, potentzial handiko bezeroak mantentzeko eta haiekin harremanetan egoteko, eta, horrela, diru-sarrerak lortu ahal izateko.

Alde batetik, gure lana, aplikazioa sortu ostean, gure bezeroengan kontrol handia izatea izango da, haien segurtasuna bermatzeko. Horretarako, haien datu pertsonalak eskatuko ditugu erregistratzeko orduan. Erregistratu eta gero, haien nahiei, hobbyei (zaletasunei), hizkuntzei eta bidaiari buruzko inkesta bat bete beharko dute.

Informazio hau gure beste funtsezko jarduerarako erabiliko dugu; hau da, informazioa jaso eta pertsona honen profila beste bezeroei proposatuko diegu antzeko gustuak izatekotan eta ikasi nahi duten hizkuntza herrialde horretan erabiltzen baldin bada. Horrela, jendea bilatzeko lana bizkortu egingo dugu eta askoz azkarrago aurkituko dute bere nahiekin bat etortzen duen norbait.

Bestalde, bidaiari agentziekin elkarlanean aritzen garenez, gure bezeroei agentzia horiek antolatutako bidaiak eskainiko diegu. Horrela, nahi izatekotan, bezeroak ez luke garraio bat bere kabuz bilatu behar.

Azkenik, gure mailera mezuak bidaltzeko edo telefonora deitzeko aukera izango dute arazoren edo zalantzaren bat baldin badute. Guk, ahalik eta azkarren erantzungo ditugu mezuak (gutako norbait erantzungo dio telefonoz deitzen duenari). Gainera, sare sozialetan argazkiak eta informazioa publikatuko dugu bezeroekin harremanetan egoteko.

